

## AUTOEBALUAZIOA 2. IKASGAIA

1.- Baliabide didaktikoak erabiliko ditugu:

- a- dauden moduan, moldatu barik
- b- irakasle/ikasleak moldatuta interes edo beharizanen arabera
- c- ez dira erabiliko, benretako ikasketa zaildu egiten dute eta

2.- Edozein baliabide didaktiko erabili aurretik ezagutuko dugu:

- a- nork egin den eta egile/argitaletxeak dituen irabaziak
- b- egileen intentzioa
- c- era askotako mezuak transmititzen dituztela

3.- Baliabide didaktikoen funtzioa dira:

- a- ezagutzaren transmisioa
- b- ezagutzaren demokratizazioa
- c- errealitatearen errepresentazioa

4.- Zerrenda itzazu testuliburuaren ezaugarriak:

- a-
- b-
- c-

## ERANTZUNAK

1: b

2: c

3. c

4. a: Testuliburua dela derrigorrez irakurri eta, askotan, buruz ikasi behar dugun liburu bakarra.

b: Liburuaren eragina eskolan ematen zaion erabileragatik baldintzaturik dagoela

c: Testuliburua gure inguruan dagoen errealitatearen ispilu soziala da eta, zentzu honetan, hautatua eta aldakorra